


PRACTICUMAREN GIDA

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA UPV/EHU



HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA



AURKIBIDEA

1. Planteamendu orokorra.....	3
1.1. Practicumaren gaitasunak.....	3
1.1.1. I Practicumaren gaitasunak.....	3
1.1.2. II eta III Practicumaren gaitasunak.....	4
1.2. Profila, funtzioak eta jarduteko alor potentzialak.....	4
1.2.1. Profila.....	4
1.2.2. Funtzioak.....	4
1.2.3. Jarduteko alor potentzialak.....	5
1.3. Deontologia profesionala.....	6
1.4. Practicumaren antolakuntza egitura Hezk., Fil. eta Antr. Fakultatean.....	6
2. Practicuma: kredituak eta gauzatze aldia. Egutegiak eta ordutegiak.....	7
3. Practicumaren esleipenaren prozesua.....	8
3.1. Aurkezpen orokorra.....	8
3.2. Praktiken aurre-hautapena.....	8
3.3. Autopracticuma.....	8
3.4. Zerbitzu, baliabide edo programaren esleipena.....	9
3.5. Erreklamazioak.....	9
4. Araudiari buruz kontuan hartu beharrekoak.....	10
5. Practicumaren hasiera.....	12
5.1. Kontaktua zerbitzu, baliabide edo programarekin.....	12
5.2. Praktikaldiaren hasiera zerbitzu, baliabide edo programan.....	12
6. Practicumaren tutoretza programa.....	13
6.1. Tutoretzaren baldintzak.....	13
6.2. Zerbitzu, baliabide edo programa instruktorearen eskubideak eta betebeharrak.....	13
6.3. Fakultateko tutorearen eskubideak eta betebeharrak.....	14
6.4. Ikasleen eskubideak eta betebeharrak.....	14
7. Gizarte Hezkuntzako Practicumaren garapen metodologikoa.....	17
7.1. I Practicumaren aurkezpena.....	17
7.1.1. I fasea.....	17
7.1.2. II fasea.....	18
7.2. II-III Practicumaren aurkezpena.....	19
7.2.1. I fasea.....	19
7.2.2. II fasea.....	20
8. Amaierako txostena.....	21
9. Practicumaren ebaluazioa.....	22
9.1. Fakultateko tutorearen ebaluazioa.....	22
9.2. Praktika zentroko instruktorearen ebaluazioa.....	22
10. Kontaktua interesgarriak.....	23
11. Practicumaren indarreko legedia.....	24

1. PLANTEAMENDU OROKORRA

Practicuma funtsezko elementua da Gizarte Hezkuntzako Graduaren ikasketa planean. Helburua da unibertsitate ikasketak zeregin profesionalera hurbiltzea, testuinguruan kokatutako esperientzia praktikoaren bidez. Horrela, ikasleak hurbildu egingo dira hezkuntza eta gizarte errealitatera, eta errealitate horretan integratuko dira, gerora beren lana izango dena ikusita, ezagututa eta egiaztatuta.

1.1. GIZARTE HEZKUNTZAKO PRACTICUMAREN GAITASUNAK

1. Profesionalki esku hartzea Gizarte Hezkuntzaren testuinguruetan, Gizarte Hezkuntzarekin lotutako diziplinen oinarri teoriko-praktikoen gainean, kontuan izanik gako etikoak eta deontologia profesionalarenak.
2. Hezkuntza arloko ekintzen erantzukizuna onartzea, nortasun profesionalaren aitortzatik eta gizarte hezitzailearen funtzio profesionaletatik abiatuta.
3. Lankidetzan eraikitzea Gizarte Hezkuntzaren izate eta egite profesionalaren gaineko ezagutza, ikerketaren eta praktikaren analisiaren bidez.
4. Argudio bidez komunikatzea, bai idatziz bai ahoz, gizarte hezitzaileen lan profesionalari buruzko gogoetak, baita hezitzailearen erakundeen kulturari buruzkoak ere.
5. Gizarte-hezkuntza arloko ekintzak gogoeta eginez planifikatzea, garatzea eta ebaluatzea Gizarte Hezkuntzako eremuetan, erreferentziazat harturik errealitate zehatz baten diagnostikoaren ondorioak.
6. Hezkuntza proposamenak eta tresnak lantzea hezkuntza eta gizarte arloko prozesuak, testuinguruak eta baliabideak aberastu eta hobetzeko.
7. Lan gaitasuna diziplinarreko eta erakunde arteko taldeetan.

1.1.1. I Practicumaren gaitasunak (V modulua)

I Practicuma 5. modulua barruan dago, "Dinamizazio soziala eta komunitateko ikuspegia" izenekoaren barruan.

Garatu beharreko gaitasunak dira:

1. Gizarte-hezkuntza arloko esku-hartzearen oinarri teorikoak (psikologikoak, soziologikoak eta pedagogikoak) ezagutzea eta ulertzea.
2. Gizarte sareen eta proiektuen garapena aztertzea eta interpretatzea testuinguru errealean, agenteak, prozesuak eta gizarte nahiz hezkuntza baliabideak integratzen eta artikulatzen dituen ikuspegi batetik.
3. Lankidetzarako behar diren gizarte trebetasunak erabiltzea gizarte partaidetza eta komunitate garapena bultzatzeko, eta hori egitea gako etikoetatik eta lanbidearen deontologiaren errespetutik, baita genero ikuspegitik eta lanbide erantzukizunetik ere.
4. Errealitatea interpretatzea gizarte eta ingurumen arazoan ikuspegitik, premia errealak identifikatzeko eta hezkuntza proposamenak jasangarritasunaren ikuspegitik egiteko.

1.1.2. II eta III Practicumaren gaitasunak (VII modulua)

II-III Practicuma 7. modulua barruan dago, "Garapen profesionala eta gizarte-hezkuntzako jarduera" izenekoaren barruan.

Garatu beharreko gaitasunak dira:

1. Profesionalki esku hartzea Gizarte Hezkuntzaren testuinguruetan, Gizarte Hezkuntzaren oinarri teoriko-praktikoen gainean, gako etikoetatik eta deontologia profesionalaren errespetutik, genero ikuspegiaz eta lanbide erantzukizunaz.
2. Lankidetzan eraikitzea Gizarte Hezkuntzaren izate eta egite profesionalaren gaineko ezagutza, ikerketaren eta praktikaren analisiaren bidez, etengabeko hobekuntzarekiko interesa sortzen lagunduz.
3. Argudio bidez komunikatzea, bai idatziz bai ahoz, gizarte hezitzaileen zeregin profesionala konfiguratzeko duen edozein zeregin mota (esku-hartzea, prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza).
4. Diziplinarreko eta erakunde arteko taldeetan lan egitea.
5. Hezkuntza errealitatea aztertzea modu gogoetatsu, metodiko eta sistematiko batetik, kontuan izanik, besteak beste, genero ikuspegia.
6. Modu global batean ulertzea Gizarte Hezkuntzako oinarrizko testuak, hizkuntza ofizialetan eta atzerriko hizkuntza batean.

1.2. PROFILA, FUNTZIOAK ETA JARDUTEKO ALOR POTENTZIALAK

1.2.1. Profila

Gizarte Hezkuntzako graduduna gizarte arloan eta hezkuntza arloan diharduen profesional bat da, arlo horietan aldaketa prozesuak bultzatzen dituena, pertsonaren, gizartearen eta oro har komunitatearen garapena sustatzeko, batik bat harreman tresnetatik abiatuta, helburu dutenak pertsonen, taldeen, kolektiboen eta komunitatearen bizi baldintzak hobetzea, arreta berezia jarriz zailtasun eta desabantaila handieneko egoeretan.

1.2.2. Funtzioak

Gizarte Hezkuntzako Funtzio Profesionalak eta erantzukizun alorrekoak, Gizarte Hezitzailearen nortasuna eta kultura artikulatzeko oinarri direnak, bi taldetan sailka daitezke. Esku-hartzearekin loturikoak eta Kudeaketarekin loturikoak.

Esku-hartzearekin lotutako funtzioak:

- Pertsonen, kolektiboen eta oro har komunitatearen gizarte-hezkuntza alorreko beharrei erantzutea.
- Pertsonen, kolektiboen eta komunitateen garapenerako mekanismoak aktibatzea.
- Pertsonen akonpainamendu, orientazio eta tutoretza lana egitea, haien garapen pertsonal eta sozialean.
- Pertsonen eta kolektiboen beren garapen testuinguruetara egokitzen laguntzea.
- Koordinazioa sustatzea Zerbitzuetako baliabideekin eta sistemekin.

Kudeaketarekin lotutako funtzioak:

- Gizarte-hezkuntzan esku hartzeko Zerbitzuak, Programak eta Proiektuak planifikatzea. Horien Analisia, Planifikazioa, Programazioa eta Ebaluazioa
- Gizarte-hezkuntzan Esku Hartzeko Zerbitzuen administrazioa, kudeaketa eta zuzendaritza.

1.2.3. Jarduteko alor potentzialak

Gida honetan jaso diren esku-hartze profesionalerako eremuak laneratze eremu potentzialak dira eta ez dute zertan bat etorri behar fakultateak eskaintzen dituen Practicumeko espazioekin.

Praktika profesionalak biztanleria osoa du jomuga, arreta berezia eskainiz gizartean aukera gutxiago dituzten pertsonen eta kolektiboen: haurrak, nerabeak, gazteak, helduak, adindunak, gutxiengo etnikoak, emakumeak, droga-mendekotasunean dauden pertsonak, dibertsitate funtzionala dutenak, immigratzaileak... gizarteratzeko, laneratze eta tokian tokiko kulturarekin bat egiteko zailtasunak dituzten kolektiboak, eta komunitatea oro har.

- Esku-hartze soziohezitzailea hurrekin eta nerabeekin, babes sistemetatik. Hartzaileak: haurrak eta nerabeak (18 urte arte).
- Esku-hartze soziohezitzailea nerabeekin gazte justiziaren alorrean. Hartzaileak: nerabeak (14-18 urte).
- Eremu soziokulturaletan esku-hartzea eta aisiaren dinamizazioa. Hartzaileak: haurrak eta nerabeak (18 urte arte). Gazteak (30 urte arte)
- Esku-hartze soziolaborala. Hartzaileak: komunitatea oro har
- Esku-hartzea helduen etengabeko prestakuntzan. Hartzaileak: helduak.
- Esku-hartzea gizartetik baztertuta edo baztertzeko arriskuan dauden helduekin. Hartzaileak: gizartetik baztertuta edo baztertzeko arriskuan dauden helduak.
- Esku-hartzea droga-mendekotasunean. Hartzaileak: toxikomanoak, komunitatea oro har.
- Esku-hartzea indarkeria matxistaren biktimekin. Hartzaileak: emakumeak
- Esku-hartzea dibertsitate funtzionala duten pertsonekin. Hartzaileak: dibertsitate funtzionala duten pertsonak, komunitatea oro har.
- Komunitate esku-hartzea. Hartzaileak: baliabideak eta zerbitzuak; komunitatea oro har.
- Esku-hartze soziohezitzailea ingurumen hezkuntzan. Hartzaileak: komunitatea oro har
- Esku-hartze soziohezitzailea osasunerako heziketan. Hartzaileak: komunitatea oro har.

1.3. DEONTOLOGIA PROFESIONALA

Gizarte Hezkuntzako etorkizuneko profesionalek kontuan izango dute kode deontologikoa beren zeregin praktikoetan (<https://www.eduso.net/wp-content/uploads/documentos/143.pdf>). Kode horrek biltzen ditu lanbidearen jarduketa eta erregulazio printzipioak, profesionalen jarrera orientatzeko esku hartuko duten erantzukizun mailetan.

1.4. PRACTICUMAREN ANTOLAKUNTZA EGITURA HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEAN

Hauxe da Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatearen egitura Practicumari dagokionez:

- Practicum Dekanordea
- Practicum Batzordea
- Practicum Koordinatzaileak titulazio bakoitzeko
- Practicumeko Teknikaria.

Antolakuntza egitura horrek Practicumaren kudeaketa bermatzen du bere osotasunean, eta modu koordinatuan egiten da, eginkizun eta erantzukizun espezifikoak onartuta kasu bakoitzean.

2. PRACTICUMA. KREDITUAK ETA GAUZATZE ALDIA. EGUTEGIAK ETA ORDUTEGIAK

Gizarte Hezkuntzako Graduaren Practicuma (42 ECTS kreditu = 1.050 ordu)

3. mailan	Practicum I	12 ECTS	300 o.	210 o. presentzial	90 o. ez-presentzial
4. mailan	Practicum II	12 ECTS	300 o.	210 o. presentzial	90 o. ez-presentzial
4. mailan	Practicum III	18 ECTS	450 o.	330 o. presentzial	120 o. ez-presentzial

Praktiken **ordutegiak** erabakiko dira haien ezaugarrien eta erakunde laguntzailearen aukeren arabera. Nolanahi ere, bateragarriak izango dira ikasleak fakultatean duen lan akademikoarekin eta prestakuntza, ordezkaritza eta partaidetza arloko zereginekin.

3. PRACTICUMA ESLEITZEKO PROZESUA

3.1. AURKEZPEN OROKORRA

Bigarren lauhilabetean zehar, Practicum bakoitzaren aurkezpen orokor bat egiten da fakultatean, hurrengo urtean practicum bat egiteko betebeharra duten ikasleentzat.

- Ikasle guztiek nahitaez joan behar dute aurkezpenera, salbuespenak salbuespen.
- Aurkezpenean parte hartzen dute: Practicumeko Dekanordeak, Practicumeko Koordinatzaileak eta Practicumeko Teknikariak.
- Practicumeko Dekanordeak azaltzen ditu Practicumeko antolakuntza gaiak, fakultatearen egitura, bete beharreko epeak, entregatzen den informazioaren edukia, ikasleen eskubideak eta betebeharrak, eta Practicuma Garapenerako Lankidetzaren proiektuetan egiteko programari buruzko informazioa, karrerako azken ikasturteko Practicuma egingo duen ikasleentzat.
- Practicumeko Koordinatzaileek azaltzen dituzte Practicum bakoitzaren helburuak, metodologia, esku hartzeko eremu posibleak, ebaluazio sistema...
- Practicumeko teknikaria arduratzen da saioaren antolakuntza orokorraz eta Practicuma kudeatzeko informazioa osatzen du.

Aukera dago **Practicuma Garapenerako Lankidetzaren alorrean** egiteko. Horretarako, urtero argitaratzen da UPV/EHUko Zientzia eta Gizarte Garapeneraren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzaren erabaki bat, unibertsitate praktikak Garapenerako Lankidetzan egiteko laguntzen berri emateko.

3.2. PRAKTIKAK AURRE-HAUTATZEA

Practicuma egiteko, ikasle bakoitzak sartu behar du **GAUR** plataformako bere profilean, "Nahitaezko praktikak" atalean, Practicumaren aurkezpenean adierazitako epean, **praktikak egiteko entitatea eta honen zerbitzu, programa edo proiektuaren aurre-hautapena** egiteko.

Ikasle bakoitzak 10 aukera hautatu behar ditu, fakultatearen eskaintzaren artean, lehenetsun ordena baten arabera, irizpidetzat harturik esku-hartze eremua, **zerbitzu, baliabide edo programa mota eta honen** kokapen geografikoa.

Oso garrantzitsua da entitatearen eta honen **zerbitzuaren, programaren edo proiektuaren** inguruko informazioa eskuratzea aurre-hautapena egin aurretik, hori egin ondoren ez baita aldaketarik onartuko.

3.3. AUTOPRACTICUMA

Ikasleek proposa ditzakete fakultateak eskainitakoez bestelako aukerak. Horretarako erabili behar dute **GAUR**eko "**Autopracticuma**" atala, eta beren kabuz bilatu duten praktika baten datuak sartu behar dituzte.

Gainera, Practicumaren Bulegoan aurkeztu behar dute **Autopracticumaren eskaera orria, proposatutako entitatearen zerbitzu, baliabide edo programako zuzendaritzak sinatua eta zigilatua**.

Nahiz eta Autopracticum eskaera egin, aurre-hautapena ere egin behar da.

Fakultateko Practicum arduradunek baloratuko dute proposamenen egokitasuna,

eta, ondorioz, proposamen bat edo gehiago egiteak ez du inoiz berekin ekarriko haien esleipen automatikoa.

3.4. ZERBITZU, BALIABIDE EDO PROGRAMAREN ESLEIPENA

Aurre-hautapen epea amaitzean, **zerbitzu, baliabide edo programa** esleituko da fakultatearen irizpide orokorraren arabera.

Esleipenak egingo dira kontuan izanik ikasleen lehentasunak, eta lehentasunak horiek bat badatoz, aintzat hartuko da espediente akademikoa.

Kontuan hartuko den espedientearen batez besteko nota izango da esleipena egiteko unean GAUREn agertzen dena.

Proposatu diren aukera guztiak amaituz gero, egoki deritzon praktikaldi formatiboa esleituko du Practicumaren Bulegoak, baldin eta eskaintzeko moduan badago.

Azken buruan eta ezohiko kasuetan, elkarrizketa bat egin ahal izango da eskaera egin duen pertsonarekin.

Autopacticuma esleitzea

Autopacticum bat aurkezten bada, fakultateko arduradunek haren egokitasuna aztertuko dute, kontuan harturik Practicumaren araudia eta plan orokorra.

Proposamena egokitzen jotzen bada, harremanetan jarriko dira proposamenaren arduradunarekin, bete beharreko plana adostuko da eta dagokion lankidetzaren hitzarmena izenpetuko da, alde aurretik hitzarmena sinatuta ez baldin badago.

Ez bada egokitzen hartzen, atzera botako da proposamena eta aintzat hartuko dira praktikak aurre-hautatzeko atalean adierazitako aukerak.

Behin plaza guztiak esleituta, argitaratu egingo dira dagokion epean GAUREko "Esleipenak" atalean.

3.5. ERREKLAMAZIOAK

Ikasleak ados ez badaude esleitu zaien praktikaldi formatiboarekin, lau lanegun izango dituzte dagokion erreklamazioa aurkezteko, behin-behineko esleipenak argitaratzen diren egunetik kontatzen hasita.

Erreklamazioak egiteko, eredu ofizialak erabiliko dira, eta eskura entregatuko dira Practicumaren Bulegoan.

Erreklamazioak ebaztea

Esleipenei eginiko erreklamazioak aztertu egingo dira, eta erabakia jakinaraziko da behin betiko esleipenak argitaratzeko unean. Ondoren, ezin izango da aldaketarik egin.

4. KONTSIDERAZIO ARAUEMAILEAK

Practicumetan matrikulatutako ikasleek praktiken tutore/irakasle bat izango dute fakultatean, eta instruktore bat praktikaren entitatearen **zerbitzu, baliabide edo programan**. Hauek Practicumaren gidariak izango dira eta jarraipen lanak egingo dituzte prozesu osoan.

Ikasleek Practicumean beren betebeharrak ez betetzeak praktika ez gainditzea ekar dezake.

Practicumaren balorazioa globala denez, haren atal bat ez gainditzeak (praktikaldi formatiboa eta jarraipena lana fakultatean) Practicuma ez gainditzea dakar.

I Practicuma gainditu ez duen ikaslea ezin izango da matrikulatu II edo III Practicumean.

Gizarte Hezkuntzako laugarren mailako Practicumaren kasua da (II eta III Practicuma), balorazio global bat dakarren prestakuntza continuum gisa planteatuta dagoelako.

Ezin izango da ikasturte berean egin Gizarte Hezkuntzako I, II eta III Practicuma, funtsezko bi arrazoiengatik:

1. Lehenik, horrek beharko lukeen ordu kopuruarengatik, bideraezin egiten duena.
2. Bigarrenik, moduluak lauhilekoetan antolatuta egonik, bat etorriko liritekeelako I eta II Practicuma lehen lauhilekoan, horrek dakarren bateraezintasunarekin.

Practicuma nahitaezko irakasgai bat denez, errespetatu beharreko datak eta ordutegia ditu.

Ikasleek frogagiria aurkeztu beharko dute, bai entitatearen zerbitzu, baliabide edo programan, bai fakultatean, egun edo ordu jakin batzuetan praktikaldi formatibora joaterik ez dutela alegatzen dutenean.

Ikasleek parte hartu beharko dute fakultatean egingo den fase bakoitzeko saioetan, jarraipen mintegiak barne. Gainera, praktiketako zentroan egin beharreko ordu guztiak bete beharko dituzte, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

Pertsona batek lan kontuengatik ezin badu Practicuma ohiko moduan egin, bete egingo da gainerako irakasgaietan aplikatzen den protokolo orokorra, lan ordutegia jasoko duen eskaera bat eginik Gradu koordinaatzaileari. Kasu horretan, tituluaren koordinaatzaileak horren berri emango die Practicumaren Dekanordetzari eta Practicumaren tutoreari.

Behar bezala justifikatutako arrazoiengatik pertsona batek aldizka baino ezin badu parte hartu fase bakoitzean programatutako jardueretan, tutoreari jakinaraziko dio eta dagokion ziurtagiri laborala aurkeztuko du, bertaratze aurreikuspenen egutegi batekin. Kasu horretan, jarduera alternatibo bat proposatuko dio tutoreak ikasleari.

Practicuma garatuko den entitatearen zerbitzu, baliabide edo programa izan daitezkeen lekuetan lan egiten duten ikasleek beren lan lekuetan egin ahal izango dituzte praktikak, Autopracticuma eskatuta. Horretarako, Autopracticumaren orriarekin batera, entitatearen ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, entitate horretan lanean ari dela ziurtatu eta ordutegia jasoko duena. Kasu horretan, gainera, ezinbestekoa izango da Prestakuntza Proiektuak argi bereiztea lan profesionalaren eta Practicumaren helburuak, zereginak eta edukiak. Edonola ere, ikasle guztientzat araututako prozesu bera erabiliko da (mintegiak, zereginak...).

Practicuma egin nahi bada Sicue-Seneca mugikortasun programaren arabera, prozedura hau erabiliko da:

- Dekanotzak ikasleen jatorri ikastegiarekin negoziatuko ditu egin beharreko kreditu kopuruari eta haien aitortza akademikoari buruzko gaiak.
- Practicumaren Dekanordetzak tutoreari jakinaraziko dio praktikak zenbat ordu izango dituen eta zein zerbitzu, baliabide edo programan egingo diren.
- Bete beharreko orduen eta beste aldagai batzuen arabera, tutoreak ikaslearekin adostuko du Prestakuntza Proiektua. Gainera, ikaslearekin hitzartutakoaren berri emango dio tutoreak Practicumaren Dekanordetzari.

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatearen titulazioetako **Practicumak deialdi bakar bat aurreikusten du ikasturte bakoitzeko**, Fakultateko Batzarraren 2010eko ekainaren 22ko akordioaren arabera. Balorazioa globala denez, deialdia ez gainditzeak berekin ekarriko du hurrengoan prozesu osoa egin behar izatea.

Irakasgai bat gehiago denez, Eskola Aseguruak hartuko du bere gain automatikoki Practicuma. Practicumak aurrez ezarritako denbora gainditzen badu, ikasleek praktikekin jarraitu ahal izango dute. Kasu horretan, **borondatezko praktikak** izango lirateke, eta fakultatearekin aztertu beharreko baldintza batzuk bete behar dira horretarako.

Practicumaren prestakuntza izaera dela-eta, ez da inolako betebeharririk sortuko lan arloan, praktikaldia egiten den entitatearekin. Honetaz gain, entitateek ez dute inongo lanposturik beteko praktiketara dauden ikasleekin.

5. PRACTICUMAREN HASIERA

Uztailean praktika guztien programak argitaratuko dira Fakultatearen Practicumaren webgunean. Programek kronograma bat izango dute, eta Practicuma zer egunetan, ordutan eta lekutan hasiko den jakinaraziko da hor.

Practicumak **Prestakuntza Programa** bat izango du fakultateko ikasle multzo osoarentzat, kasu eta zerbitzu, baliabide edo programa bakoitzari egokituko beharko zaiona, akordio batera helduta ikaslearen, instruktorearen eta fakultateko irakasle/tutorearen artean. Practicumaren prozesu osoan iraungo dute kontaktu horiek.

5.1. KONTAKTUA PRAKTIKA ZERBITZU, BALIABIDE EDO PROGRAMAREKIN

Behin plazak esleituta eta dagozkion egunetan argitaratuta, ikasleek jakingo dute praktiketarako zein entitatearen zerbitzu, programa edo proiektua egokitu zaien, **baina ez dira harremanetan jarriko harekin fakultateko irakasle/tutoreak hori egin arte.**

Fakultateak lehen kontaktua egin ondoren, dei egingo zaie ikasleei lehen bilera batera, fakultatean bertan, eta hor jarriko da martxan Practicumaren prozesua.

5.2. PRAKTIKALDIAREN HASIERA ZERBITZU, BALIABIDE EDO PROGRAMAN

Fakultatean lehen bilera egin ondoren, ikasleak harremanetan jarriko dira beren entitatearen zerbitzu, programa edo proiektuarekin eta bertara joango dira hango tutorearekin hitzartutako datan.

Praktikak hasi aurretik, ikasleek bete beharko dituzte **“XI eranskina”** eta **“Practicumarekiko konpromiso orria”**, eskuragarri Practicumaren webguneko **“Inprimakiak”** atalean. Dokumentu horiek **eskura emango zaizkio praktika zerbitzu, baliabide edo programaren instruktoreari Practicumaren lehenengo egunean.**

6. PRACTICUMA TUTORIZATZEKO PROZEDURA

6.1. TUTORIZAZIORAKO BALDINTZAK

Practicuma egitean, ikasleek tutoretza izango dute bai praktika zerbitzu, baliabide edo programan bai fakultatean.

Komenigarria izango da praktika zerbitzu, baliabide edo programetan tutoretza lana egingo dutenek esperientzia eta ezagutzak edukitzea tutoretza egoki bat egiteko Gizarte Hezkuntzako Graduan, baita gutxieneko prestakuntza ere, ikaslea egiten ari den ikasketaren maila berekoa.

6.2. ZERBITZU, BALIABIDE EDO PROGRAMA INSTRUKTOREAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Praktikaldi zerbitzu, baliabide edo programaren instruktoreak **eskubide** hauek izango ditu:

- Bere zeregina aitortua izateko eskubidea, dagokion ziurtagiriaren bidez.
- Fakultatearen kanpoko praktikak arautzen dituen arautegiari buruzko informazioa jasotzekoa.
- Unibertsitatera jotzeko eskubidea, bere zereginerako behar dituen informazio eta laguntza bila.

Gainera, **betebehar** hauek izango ditu:

- Ikasleari harrera egitea eta jarduera antolatzea, kontuan izanik prestakuntza proiektuan ezarritakoa.
- Ikaslearen jarduerak gainbegiratzea eta praktikaren garapena orientatzea eta kontrolatzea, elkarrekiko errespetuan eta ikaskuntzarekiko konpromisoan oinarrituta.
- Ikasleei zerbitzu, baliabide edo programaren informazioa ematea antolakuntza eta funtzionamenduari buruz eta interes berezia duen araudiari buruz (laneko segurtasun eta arriskuei buruzko araudia, bereziki).
- Unibertsitateko tutorearekin koordinatzea prestakuntza proiektuan ezarritako jarduerak egiteko, proiektuan sor daitezkeen gorabeheren berri ematea eta horiek konpontzea, eta azterketak egiteko baimenak kontrolatzea.
- Ebaluazio prozesuan parte hartzea, prozesu horri buruzko informazioa jaso ondoren.
- Ikasleari ematea praktikak egiteko behar duen prestakuntza osagarria.
- Ikasleari ematea praktikak egiteko behar dituen bitarteko materialak.
- Ikaslea bultzatzea berrikuntza, hobekuntza eta ekintzaitetza proposamenak egitera.
- UPV/EHUko tutoreari erraztea erakunderako sarbidea, bere eginkizunak bete ditzan.
- Konfidentzialtasuna gordetzea begirale gisa ikaslearengandik jasotako edozein informaziori dagokionez.
- Ikasleari laguntzea erakundean egonaldiak iraun bitartean ikuspegi profesionaletik sor litezkeen gorabeherak konpontzen.

6.3. FAKULTATEKO TUTOREAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Fakultateko tutorearen eskubideak izango dira:

- Bere zeregin akademikoa aitortua izateko eskubidea, indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Praktiken araudiari buruzko informazioa jasotzekoa.
- Erakunde laguntzailera jotzeko eskubidea, bere helburuak betetzeko.

Gainera, **betebehar** hauek izango ditu:

- Prestakuntza proiektua ondo garatuko dela ziurtatzea eta bateragarritasuna bermatzea ikaslearen praktiken ordutegiaren eta betebehar akademikoen nahiz prestakuntza, ordezkari eta partaidetza arloko zereginen artean.
- Praktiken jarraipen eraginkor bat egitea erakunde laguntzaileko instruktorearekin koordinatuta, eta kontuan izanik, hala badagokio, jarraipen txostenak.
- Prestakuntza proiektuan egingo diren aldaketak baimentzea.
- Tutoretzapean dagoen ikaslearen praktikak ebaluatzea, araudi honen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Konfidentzialtasuna gordetzea tutore gisa eginiko lanean jasotako edozein informaziori dagokionez.
- Sortutako gorabeherari buruzko informazioa ematea Praktiken Programaren Arduradunari edo, zerbitzu, baliabide edo programak hala ezartzen duenean, titulazioko praktiken arduradunari.
- Laguntza baliabideak gainbegiratzea eta modu egokian erabiltzeko eskatzea, desgaitasuna duten ikasleek praktikak egin ditzaten aukera berdintasun, ez-diskriminazio eta irisgarritasun unibertsitateko baldintzetan.

6.4. IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Practicumeko *ikasleek* eskubide hauek izango dituzte:

- Tutoretza jasotzeko eskubidea, praktikak iraun bitartean, unibertsitateko irakasle batengandik edo praktika egingo den enpresa edo erakundearen arituko den profesional batengandik.
- Ebaluatua izatekoa, unibertsitateak ezarritako irizpideen arabera.
- Praktikak egin diren erakundearen txostena jasotzeko eskubidea, berriaz aipatuta eginiko jarduera, haren iraupena eta, hala badagokio, errendimendua, aintzat harturik unibertsitateak ezarritako prozedura.
- Hala ezarrita dagoen kasuetan, dagokion ekarpen ekonomikoa jasotzekoa, poltsa edo ikasketa laguntza gisa.
- Jabetza intelektual eta industrialerako eskubidea, arloa arautzen duen legediaren arabera, ikasleak lagapen edo transmisio dokumentu bat izenpetu duenean izan ezik.
- Lan arriskuen prebentzio eta segurtasun araudiari buruzko informazioa jasotzekoa, erakunde laguntzailearengandik.
- Beren jarduera akademikoa nahiz prestakuntza, ordezkari eta partaidetza zereginak betetzeko eskubidea, erakunde laguntzaileari behar besteko aurrerapenez jakinarazi ondoren.
- Desgaitasuna duten ikasleek kasuan, beharrezko baliabideak eskuratzeko eskubidea, tutoretza, informazioa eta ebaluazioa jasotzeko eta praktikak beste ikasleek baldintza berberetan egiteko.
- Desgaitasuna duten ikasleek kasuan, praktikak bateratzeko eskubidea, desgaitasun

egoeratik sortutako jarduera eta egoera pertsonalekin.

- Indarreko legedian eta unibertsitateak erakunde laguntzailearekin izenpetutako hitzarmenetan aurreikusitako gainerako eskubideak.

Gainera, Practicum egitean, ikasleen betebeharrak izango dira:

- Unibertsitatearen kanpoko praktikei buruzko araudia betetzea.
- Praktiken prestakuntza proiektua ezagutzea eta betetzea, aintzat harturik erakunde laguntzaileak izendatutako instruktorearen jarraibideak, unibertsitateko tutorearen gainbegiradapean.
- Harremanetan egotea unibertsitateko tutorearekin praktikak iraun bitartean, sor daitekeen edozein gorabeheraren berri ematea, eta eskatzen zaizkien dokumentuak, txostenak eta azken memoriak entregatzea.
- Adostutako egunean dagokion erakunde laguntzailean hastea, hezkuntza proiektuan ezarritako ordutegia betetzea, janzkera eta higiena praktika zehatzera egokitzea, eta haren funtzionamendu, segurtasun eta prebentzio arauak errespetatzea.
- Praktiketara, pertsonen eta instalazioen segurtasuna bermatuko duen jarrera izatea.
- Prestakuntza proiektua garatzea eta erakunde laguntzailearekin hitzartutako jarduerak prestasunez betetzea, proiektu horretan ezarritako lerroen arabera. g) Araudi honen 32. eta 40. artikuluetan aipatutako dokumentuak idaztea eta entregatzea, praktika motaren arabera.
- Konfidentziasuna gordetzea erakunde laguntzailearen barne informazioan eta sekretu profesionala bermatzea. Hortaz, ez dute jakinaraziko edo inoren esku utziko praktikaren aurretik, praktika egin bitartean edo praktika amaituta lortutako datu edo informaziorik.
- Segurtasun neurriak eta jarraibideak betetzea baliabide informatikoak erabiltzean, informazioa eskuratzean eta dokumentuak zaintzean, baita instalazioen segurtasunean ere.
- Errespetuz jokatzeko beti erakunde laguntzailearen politikarekin, eta unibertsitatearen izen ona babestea.
- Indarreko legedian eta unibertsitateak erakunde laguntzailearekin izenpetutako hitzarmenetan aurreikusitako gainerako betebeharrak.

7. GIZARTE HEZKUNTZAKO PRACTICUMAREN GARAPEN METODOLOGIKOA

7.1. I PRACTICUMAREN AURKEZPENA

Gizarte Hezkuntzako I Practicumak 12 kreditu ditu, bi bloke bereiz eta osagarrietan gauzatuko direnak.

- **I fasea** (fakultatean): 2 ECTS kreditu = 50 ordu: 35 ordu presentzial eta 15 ordu ez-presentzial
- **II fasea** (zerbitzu, baliabide edo programan): 10 ECTS kreditu = 250 ordu: 175 ordu presentzial eta 75 ordu ez-presentzial

7.1.1. I FASEA

Helburua

Aldez aurreko prestakuntza edukien alderdi esanguratsuenak lotzea ekintza praktikoaren analisiarekin, Gizarte Hezkuntzaren alor profesionaletan sakonduta; profesionalak eta haien profilak, zergatik, zertarako eta nola egiten duten beren hezkuntza lana.

Prozedura metodologikoa

Prozesu metodologikoa artikulatzen da sei lan nukleoren inguruan:

1. **Practicumaren aurkezpena eta kokapena:** Practicumaren lerro nagusiak aurkeztea eta argitzea, haren egitura eta jarduerak eta ikasleen konpromisoak eta jarrera nabarmentzen dituztenak. Practicumaren alorrean indarrean dagoen araudia aurkeztea, baita ikasleek bete beharreko araudi horren eranskin bakoitza ere.
2. **Garatutako gaitasun akademikoei buruzko gogoeta partekatua:** ikasleek berrekin egiten diote aurreko eduki teoriko-praktikoen inguruan eginiko lanari, irakurketa patxadatsu bat egiteko distantzia pertsonaletik eta aurreko ikasturteetan ikasitakotik.
3. **Gizarte Hezkuntzaren alorreko zerbitzu, baliabide, programa eta entitate esanguratsuen aurkezpena:** hainbat esperientzia soziohezitzaileak aurkezten dira, ikasleek haien Gizarte Hezkuntza eta antolakuntza lanari buruzko informazioa lor dezaten eta informazio hori kontrasta dezaten.
4. **Ikasleen lekukotasuna:** ikasleek ikaskideengandik jasoko dituzte Practicumeko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen sintesia eta ibilbidea eta, era horretan, gako berriak zerbitzu, baliabide edo programetan berehala kokatzeko.
5. **Trebetasun profesionalak, harremanetarako trebetasunak eta deontologia profesionala:** ikasleek parte hartuko dute jarduera praktikorako harreman gaitasun profesionalei buruzko lan prozesu batean, eta funtsezkoa izango da horretarako Gizarte Hezkuntzaren jarrera etikoak eta deontologikoak onartzea.
6. **I Practicumera egokitutako tresna metodologikoak berreraikitzea:** ikasleek parte hartuko dute hainbat lantegitan, besteak beste, zerbitzu, baliabide edo programaren kokapen instituzionala eta administratiboa behatzeko teknikak aztertzeke. Era berean, egunerokoaren teknika landuko da, ariketa praktikoen bidez

datuak biltzeko tresna gisa.

7.1.2. II FASEA

Helburua

Bloke honen helburu nagusia da ikasleak trebatzea beren rol profesionalean, **behaketaren, gogoetaren** eta beste profesional batzuekiko lankidetzaren praktikaren bidez. Hortaz, kontua da bizitza profesionalean testuinguru jakin batean jarduteko moduen errealitatea ezagutzea, eta titulazioan hartutako prestakuntza eduki teorikoak eta praktikoak kontrastatzea.

Prozedura metodologikoa

Practicumak bi prozesu jarriko ditu martxan aldi berean:

- **Gizarte Hezkuntzako praktikak zerbitzu, baliabide edo programa soziohezitzaileetan:** I Practicumaren zati hau antolatuta dago ikasleek lehen kontaktu baten bidez lanaren esperientzia har dezaten.
- **Jarraipen eta elaborazio teoriko-praktikoko mintegiak fakultatean:** Mintegiak dira Practicum honetan parte hartzen duten ikasle guztien antolakuntza eta ikaskuntza esparrua. Haien helburua da ikaskuntza sustatzea eta sozializatzea, eta ezagutzak transferitzea, ikasleen gogoetaren eta azalpenaren bidez, haietako bakoitzak egiten duen lanetik abiatuta. Gainera, informazio iturri garrantzitsua dira, Gizarte Hezkuntzaren lan profesionalaren erreferenteak ematen dituztelako.

Metodologia aktiboak erabiltzen dira, ikasitakoaren bidez sustatzeko bai parte hartzea bai konpromiso profesional eta soziala, praktikek lanbidearen zentzu deontologikoan duten esanahiari dagokionez.

Tematika interesgarrien artean daude: jarduera profesionala txertatzen den erakunde eta arau sarea, harrera eta haren zentzua hezkuntza harremana ezartzeari dagokionez, ekintza profesionalean integratzen diren jarrerazko eta bizipenezko prozesuak, esku-hartzearen zentzua eta esanahia, esku-hartze prozesuen eraikuntza eta abiaraztea, ekintza praktikoaren azterketa, harreman profesionalak eta hezkuntzako lan koordinatua, baldintza soziolaboralak eta prestakuntza beharren proiektzioa.

7.2. II-III PRACTICUMAREN AURKEZPENA

Gizarte Hezkuntzako II eta III Practicumak 30 kreditu ditu: 12 kreditu lehenengo lauhilekoan eta 18, bigarrean.

Practicum bakar gisa pentsatuta dago, eta bi bloke ditu:

I fasea (fakultatean): 2 ECTS kreditu = 50 ordu: 35h presentzial eta 15h ez-presentzial

II fasea (zerbitzu, baliabide edo programetan): 28 ECTS kreditu = 700 ordu: 505h presentzial eta 195h ez-presentzial

7.2.1. I FASEA

Helburua

Ikasleak kokatzea laugarren ikasturteko Practicumean, prestakuntza aldi horren jarduera eta zereginetarako egokitzapenean orientatzea, eta ikasteko tresnak zehazten laguntzea, egokiak praktika prozesuaren kokapen eta analisirako.

Prozedura metodologikoa

Helburua da alderdi teorikoak, testuingurukoak, arauemaileak, instrumentalak eta bizipenezkoak zehaztea, titulazioaren laugarren mailako Practicum prozesuaren oinarri izan behar dutenak. Metodologia aktiboen bidez, lantzen dira aldez aurreko esperientziaren berrikuspena, aldez aurreko kokapena praktikak egingo diren erakundeen esparruan, eta kokapen horretarako funtsezkoak diren alderdi teoriko-praktikoak.

Prozesu metodologikoa artikulatzen da bost lan nukleoren inguruan:

1. **II eta III Practicumaren aurkezpena eta kokapena:** Practicumaren lerro nagusiak aurkeztea eta argitzea, haren egitura eta jarduerak eta ikasleen konpromisoak eta jarrera nabarmentzen dituztenak. Practicumaren alorrean indarrean dagoen araudia aurkeztea, baita ikasleek bete beharreko araudi horren eranskin bakoitza ere.
2. **Espektatibak aztertzea eta doitzea:** taldean, aurkeztu eta aztertu egingo dira ikasleek hautemandako espektatibak, laugarren mailako Practicumarengandik espero denari eta espero daitekeenari buruzko berrikuspen eta gogoeta indibidualerako.
3. **Garatutako gaitasun akademikoei buruzko gogoeta partekatua:** ikasleek berrekin egiten diote aurreko eduki teoriko-praktikoen inguruan eginiko lanari, irakurketa patxadatsu bat egiteko distantzia pertsonaletik eta aurreko ikasturteetan ikasitakotik.
4. **Zerbitzu, baliabide edo programetan erabilitako trebetasun profesionalak:** ikasleek parte hartuko dute trebetasun profesionaleri buruzko lan prozesu batean, helburu dutenak hezkuntza esku-hartzea eta rol profesionalaren garapena bultzatzea.
5. **II eta III Practicumari egokitutako tresna metodologikoak berreraikitzea:** ikasleek parte hartuko dute hainbat eduki izango dituzten tailerretan; besteak beste, martxan dauden programen analisi eta ebaluazio teknikak, diseinu proposamenen planifikazioa...

7.2.2. II FASEA

Helburua

Bloke honetan eginiko lanari esker, ikasleek, alde batetik, beren rol profesionala eraikiko dute behaketaren, gogoetaren eta beste profesional batzuekiko lankidetzaren praktikaren bidez; bestetik, **lanbidean trebatuko dira zuzeneko esku-hartzearen bitartez.**

Prozedura metodologikoa

Practicumak bi prozesu jarriko ditu martxan aldi berean:

1. **Gizarte Hezkuntzako praktikak zerbitzu, baliabide edo programa soziohezitzaileetan:** II eta III Practicumaren atal honen antolakuntzari esker, ikasleak, abiapuntu eta behaketako lehen fasearen ondoren, esku-hartze profesionalean integratzen dira, beren titulazioaren profilari dagozkion gaitasunak garatzeko.
2. **Jarraipen eta elaborazio teoriko-praktikoko mintegiak fakultatean:** mintegiak dira Practicum honetako ikasle guztiek partekatzen duten antolakuntza eta ikaskuntza esparrua, eta hor egingo da ikasleen Prestakuntza Proiektu indibidualen jarraipena. Helburua da ikaskuntza sustatzea eta sozializatzea, eta ezagutzak transferitzea, ikasleen gogoetaren eta azalpenaren bidez, haietako bakoitzak egiten duen lanetik abiatuta. Beraz, laguntza, ekoizpen eta komunikazio guneak dira. Gainera, informazio iturri garrantzitsua dira, Gizarte Hezkuntzaren lan profesionalaren erreferenteak ematen dituztelako.

Metodologia aktiboak erabiltzen dira, ikasitakoaren bidez sustatzeko bai parte hartzea bai konpromiso profesional eta soziala, praktikek lanbidearen zentzu deontologikoan duten esanahiari dagokionez.

Tematika interesgarrien artean daude: jarduera profesionala txertatzen den erakunde eta arau sarea, harrera eta haren zentzua hezkuntza harremana ezartzeari dagokionez, ekintza profesionalean integratzen diren jarrerazko eta bizipenezko prozesuak, esku-hartzearen zentzua eta esanahia, esku-hartze prozesuen eraikuntza eta abiaraztea, ekintza praktikoaren azterketa, harreman profesionalak eta hezkuntzako lan koordinatua, baldintza soziolaboralak eta prestakuntza beharren proiektzioa.

8. AMAIERAKO MEMORIA

Praktikak amaitzeko, Practicum prozesuaren Amaierako Memoria egingo dute ikasleek, praktiketan sortu diren egoerak eta testuinguruak deskribatuz eta aztertuz. Practicumaren prozesuan gogoeta sustatu eta Amaierako Memoria errazteko, behaketen egunerokoa bezalako tresna bat erabiliko dute ikasleek beren esperientzia jasotzeko.

Amaierako txostenak hainbat gai jasoko ditu:

I PRACTICUMAREN MEMORIA:

1. Txostenaren aurkezpena
2. Zerbitzua edo praktiken programa testuinguruan kokatzea
3. Praktiken prozesua jasotzea, I Practicumari dagokionez
4. I Practicumean eginiko lanaren analisia eta gogoeta
5. I Practicumaren hasierako prestakuntzan landutako materiala

II-III PRACTICUMAREN MEMORIA:

1. Memoriaren aurkezpena
2. Zerbitzua, baliabide edo praktiken programa testuinguruan kokatzea
3. Praktiken prozesua jasotzea, II Practicumari dagokionez
4. II Practicumean eginiko lanaren analisia eta gogoeta
5. II Practicumaren hasierako prestakuntzan landutako materiala
6. III Practicumeko esku-hartze proiektu bat diseinatzea, praktikan jartzea eta ebaluatzea
7. Praktiken prozesua jasotzea, III Practicumari dagokionez
8. III Practicumean eginiko lanaren analisia eta gogoeta

II Practicumaren Memoriak batik bat 1, 2, 3, 4 eta 5 puntuak landuko ditu. III Practicumaren Memoriak batik bat 5, 6, 7 eta 8 puntuak landuko ditu. II Practicumaren Memoriak eta III Practicumarenak amaierako dokumentu bakar bat osatuko dute.

9. PRACTICUMAREN EBALUAZIOA

Practicuma ebaluatzean, bi atal nagusi hartuko dira kontuan: alde batetik, fakultatean eginiko lana; bestetik, praktiketako lekuan eginikoa.

Tutoreak ebaluatuko du fakultatean eginiko lana, Otik 5era bitarteko puntuazioaz.

Aldiz, instruktoreak ebaluatuko du praktiketako zerbitzu, baliabide edo programan eginiko lana, Otik 5era bitarteko puntuazioaz.

Amaierako nota izango da bi kalifikazioen emaitza. Hala ere, nahitaezkoa izango da bi atalak gainditzea Practicuma gainditzeko.

9.1. FAKULTATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA

Hona hemen Fakultateko tutoreak kontuan izango dituen elementuak Practicuma baloratzean:

- Fakultatean antolatutako jarduera, mintegi eta tutoretza guztietara joatea eta horietan parte hartzea.
- Ikaskideekin harremanetan jartzeko trebetasun sozialak erabiltzea.
- Estrategiak eta prozedurak garatzea eta erabiltzea praktika profesionallean.
- Practicumaren hasierako prestakuntza egitea.
- Practicumaren Azken Memoria: ebaluazio irizpideak:
 - Memoriaren irizpide eta egiturara egokitzea: argitasuna eta koherentzia datuak aurkeztean. Dokumentuaren idazketa unibertsitate mailara egokituko da.
 - Zehaztasuna, zorroztasuna eta argitasuna dokumentazioaren azalpenean eta argudioetan. Ondo erabiltzea lanbidearen hiztegia.
 - Eginiko praktiken analisisian eta haiei buruzko gogoetan sakontzea.
 - Gizarte Hezkuntzako profesionalaren rolera egokitzea eta harekiko konpromisoa, garatutako lan alorrean. Profil profesionalaren analisisia eta gogoeta.

9.2. PRAKTIKETAKO ZERBITZU, BALIABIDE EDO PROGRAMA INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA

Practicuma amaitzean, praktiketako zerbitzu, baliabide edo programaren instruktoreak ikasleen ebaluazio orria bete beharko du, eta fakultateko tutoreari bidali.

Ebaluazioan kontuan hartuko dira:

- Praktiketako ordu guztiak betetzea, hitzartutako egutegiaren eta ordutegiaren arabera.
- Zereginen betetze maila; hau da, dedikazioa, erakutsitako gaitasuna, interesa eta jarrera arduratsua eta gogoetatsua.
- Lankidetzat talde profesionaletan, ekiteko gaitasuna.
- Ebaluazio orria betetzea.

10. KONTAKTU INTERESGARRIAK

- Practicum dekanordea: **Esther Cruz** esther.cruz@ehu.eus
- Practicum koordinatzaileak: **Jon Mikel Luzarraga** jonmikel.luzarraga@ehu.eus eta **Elixabete Sáenz** elixabete.saenz@ehu.eus

- Practicum teknikaria: **Miriam Delgado** hefa.practicum@ehu.eus

11. PRACTICUMAK AINTZAT HARTUTAKO LEGEDIA

- 1707/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa, unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituena.
<http://www.boe.es/boe/dias/2011/12/10/pdfs/BOE-A-2011-19362.pdf>
- Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak Arautzeko Araudia, 2012ko irailaren 27ko Gobernu Kontseiluan onartua.
http://www.ikasleak.ehu.es/p202shgradct/es/contenidos/informacion/normativas_gra.do
- ASEDES (2008). Documentos Profesionalizadores
- Erabakia, 2019ko uztailaren 24koa, Graduoko eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordearena eta Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordearena, UPV/EHUko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen araudia onartzen duena, Gobernu Kontseiluak 2019ko uztailaren 12an onartua.
- <https://www.ehu.eus/documents/4998110/7478848/Normativa+practic+2019+cast.pdf/e6c08748-26bb-d8f0-8a51-0b87ee194231?t=1580114239000>